



**Jangela Zerbitzua**

## JANGELA 2015/16 IKASTURTEA

Hona hemen, jangela zerbitzuari buruz beti gogoan hartu beharreko hainbat zehaztapen:

### IZENA EMATEKO EPEAK:

- Izena emateko epe jakin bat dago (maiatzean hurrengo ikasturterako eta iraileko lehenengo egunak beharrezkoa duenak aldaketak egiteko). Behin apuntatuz gero, urtetik urtera horrela geratuko da, arduradunak beste abisurik jasotzen ez duen bitartean.
- Zerbitzua ohiko bazkaltiarrekin (4 edo 5 egun astean) antolatu ondoren jakingo da urtero ez ohikoentzat lekurik dagoen.

### ALDAKETAK:

- Epean jarritako egun horretatik aurrera ezingo da aldaketarik egin, ez egun kopuruan, ezta egun aldaketa ere. Salbuespen bakarra ohikoen artean 5 egunetik 4ra edo 4 egunetik 5era.
- Ikasturtean zehar ohikoren bat borratzen bada (baja) eta gero, berriro hasi nahi badu, ez ohikoen kuota izango du.

### KOBRANTZA ETA DESKONTUAK:

- Ikasle bakoitzak, apuntatzen den egunen arabera, hileroko kuota izango du. Kuota 10 hilabetetan kobratuko da..
- %50 itzuliko da honako kasuetan:
  - Eskolak antolatutako zerbaitengatik (irteerak...) jangela ez bada erabiltzen.
  - Ikasle batek jantokira aste oso bat edo gehiago jarraian huts egiten badu; gaixotasunagatik bada, sortzen den momentuan ondo abisatuta, eta beste kasuetan, 48 ordu lehenago abisatuta.
- Deskontu horiek, ikasturtea bukatzeko falta diren kuotetan egingo dira.

### ABISUAK:

- Egunen batean jangela ez bada erabili behar, jangelako arduradunari 24 ordu lehenago abisatu behar zaio eta alergiaren bat duten ikasleek 48 ordu lehenago. Abisatzeko bideak: ikasleak berak eskuz idatzizko oharra emanaz, telefonoz (943555423) edo E-maila bidez (laubidieta@langile.eus), beti 11:00k baino lehen.
- Jangelako bazkaltiarra ez den norbaitek zerbitzua bat-bateko premia dela eta erabili beharko balu, abisatu beharko luke eta egun horretako zerbitzua eskuz ordaindu beharko dio jangelako arduradunari edo Felipe administrariari (Laubidietan), Anabel sukaldariari (Meaben) eta, Arantxa Iraolari (Bidebietan) Egunekoa:5,20 €

Edozein zalantza, aldaketaren aurrean... jangelako arduradunarengana jo behar da beti.

**Gelaburu eta Jangela Batzordeak**